

# DBHKO 4. MAILA

PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDE  
PERTSONALA ETA PROFESIONALA

# LAN-MUNDUA AZTERTZEN: JARRI BESTEEN AZALEAN

Alejandro Ramos Fernández

Ikasketa-  
egoeren  
programazioa  
(LOMLOE)


Finantzailea:



Proiektu bat:



# Testuingurua



# Programazioa 8 saio

ira

urri

azar

aben

urt

ots

mar

api

mai

eka

# Ikuspegi metodologikoa

- Ikasketa-zerbitzua
- Ikasketa-paisaia
- Ulermen-proiektua
- Proiektuetan oinarritutako ikasketa (poi)
- Design thinking
- Flipped classroom
- Ikasketa kooperatiboa
- Pentsamenduan oinarritutako ikasketa
- Arazoetan oinarritutako ikasketa
- Beste bat: antzerkia

# Ikasketa-egoera

**(Narratiba, problemaren enuntziatua, erronka edo testuinguratuta dagoen edo ikasleentzat esanguratsua den topiko sortzailea eta GJHeKin erlazionatuta dagoena).**

Presta zaitetz ikasketa-abentura zoragarriaren protagonista izateko. Unitate honetan, ikasleak izango dira ikertzaile nagusiak, lan-mundua nola aldatu den eta zer bilakaera izan dezakeen aztertuko dute. Gaitasun nagusiak garatuko dituzte, honelako galderari erantzuten dieten bitartean:

- Nolakoak ziren lanak iraganean?
- Nolakoak dira gaur egun?
- Zeintzuk dira gure eskubideak eta betebeharrak langile eta enpresari gisa?
- Beti gauza bera eskatuko al zaio langileari?
- Aukera berberak dira guztientzat?
- Nolakoak izango dira etorkizuneko lanak?

**Misioa gai hauen inguruan ikertzea, aztertzea eta hausnartzea da**, pentsamendu kritikoa eta analitikoa erabilita. Lan-merkatuko aldaketak ikuspegi zuhur batetik aztertuko dituzte, kontuan hartuz Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) eta gizartearen beharrak.

Jarduera bakoitzak ikasleen errealitateari erronka joko dio eta lan-aldaketek gizarteari nola eragiten dioten ezagutuko du, haren dibertsitatean. **Ikasleak izango dira erantzunak aurkituko dituztenak eta horiek gida gisa erabiliko dituzte esploratze honetan.**

# Gaitasun espezifikoa, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak

## Gaitasun espezifikoa

### Gaitasun espezifikoa 3

Gizakia ezagutzea eta ulertzea, haren gizarteak eta kulturak, beren konplexutasuna ikuspegi desberdinetatik aztertuz, espiritu kritikoa sustatuz gizakien, gizartearen eta kulturaren funtzionamendua zuzentzen duten alderdien inguruan.

## Funtsezko gaitasunen deskriptoreak

CPSAA3 / CC1 / CC2 / CC3 / CE2.

## Ebaluazio-irizpideak

**3.1.** Giza izaeraren, gizartearen eta kulturaren inguruan kritikoki hausnartzea, giza zientziek eta gizarte-zientziek eskaintzen duten ezagutzatik abiatuta.

**3.2.** Dibertsitate pertsonal, sozial eta kulturala ikuspegi desberdinetatik aztertzea, giza zientziek eta gizarte-zientziek eskaintzen dituzten ezagutzetatik abiatuta, errespetu- eta enpatia-jarrerak erakutsiz.

## Oinarrizko jakintzak (edukiak)

**B.** Bizitza heldurako prestakuntza eta orientabide pertsonala eta profesionala:

**B4.** Prestakuntza akademikorako eta profesionalerako orientabidea. Ingurune profesionalaren esploratzea.

**B5.** Ingurune profesionalaren esploratzea.

**Gaitasun espezifikoa****Gaitasun espezifikoa 4:**

Gizakiaren dimentsio sozial eta antropologikoa ezagutzea eta testuinguru aldakorretarako eta talde desberdinetarako egokiak diren estrategia eta gaitasun sozialak garatzea.

**Funtsezko gaitasunen deskriptoreak**

CC1 / CC2 / CC3 / CE2.

**Ebaluazio-irizpideak**

**4.3.** Dibertsitatea baloratzea, errespetuan, inklusioan eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun erreal eraginkorrean oinarrituta, maila pertsonal, sozial eta kulturean elementu aberasgarritzat eta baliozkotzat hartuz.

**4.4.** Taldean lan egiteko gaitasuna hobetzea, ikuspuntu desberdinak errespetatuta.

**4.5.** Gainontzekoekin komunikatzeko gaitasuna hobetzea, teknologia berriek eskaintzen dizkiguten abantailak eta eragozpenak ulertuz eta horiei aurre eginez.

**Oinarrizko jakintzak (edukiak)**

**C.** Proiektu pertsonala, akademiko-profesionala eta enpleguaren bilaketa aktibora hurbilketa:

**C2.** Prestakuntza akademikorako eta profesionalerako plana. Etorkizunerako enpleguaren bilaketa-plan aktiborako hurbilketa.

**Gaitasun espezifikoa****Gaitasun espezifikoa 5:**

Inguruneak eskaintzen dituen aukera akademiko eta profesionalak esploratzea, behar eta interes pertsonalak eta bokazionalak ezagutzuz eta lehenetsiz, eta ekimen- eta gaitasun-espiritua garatuz, eta horietaz gain, erabakiak hartzeko beharrezko trebeziak ere bai, proiektu pertsonal, akademiko eta profesional propio bat gauzatzeko, eta enplegua bilatzeko plan baten diseinurako lehen hurbilketa bat egitea.

**Funtsezko gaitasunen deskriptoreak**

CD1 / CD3 /  
CPSAA4 /  
CPSAA5 / CE1 /  
CE2 / CE3.

**Ebaluazio-irizpideak**

**5.1.** Proiektu pertsonal, akademiko eta profesional propio bat egitea eta enpleguaren bilaketa-prozesu aktibora hurbiltzea, beharrak lehenetsiz eta interes pertsonalak eta bokazionalak ezagutzuz, horretarako ingurune presentzialak eta birtualak eskaintzen dituen aukera akademiko eta profesionalak esploratuz eta erabakiak hartzeko prozesuan beharrezko trebeziak garatuta.

**5.2.** Gertuko ingurunea esploratzea eskaintzen dituen aukera akademiko eta profesionalak identifikatuz, ezaugarri eta interes pertsonaletara hoberen egokitzen direnak baloratuz eta ekimen- eta gaitasun-espiritua indartuz.

**Oinarrizko jakintzak (edukiak)**



# Landuko den hezkuntza itun globalaren arloa

(Gjhen inguruko gure ikuspegia)

Proiektu honetan, batera esploratuko ditugu funtsezko kontzeptu batzuk, hala nola duintasuna, giza eskubideak, senidetasuna, lankidetzak eta kulturak.

**Zure misioa izango da ikertzea eta ezagutzea** nola ulertzen den duintasuna ikuspegi desberdinetatik begiratuta: soziala, genero-ikuspegia, ekonomikoa eta ingurumen-ikuspegia, eta nola lotzen den hori guztia lan-merkatuarekin. Zure eskubideak eta gure mundua hobetzeko dagoeneko lanean ari diren proiektu eta pertsona inspiratzaileak ezagutuko dituzu.

**Imajinatu zure burua lankidetzako eta aldaketa positiboko istorio errealak esploratzen.** Gure gizartea modu bateratzaile eta sortzaile batean hobetzeko modu desberdinen inguruan ikasiko duzu. Eta zirrargarriena da aukera izango duzula zure aurkikuntzak munduarekin partekatzeke.

**Informazio baliotsu hori sortuko dugun podcast baten bidez zabalduko dugu,** plataforma horretan zure aurkikuntzak inspirazio bilakatuko dira besteentzat.

## Ebaluazio-irizpideak

## Ikasketa-helburuak

(ebaluazio-irizpide bakoitzerako, ikaslearentzako ikasketa-helburuak bildu)

### 1. Irizpidea

Gai naiz lan- eta pentsamendu-metodologia desberdinak identifikatzeko, indibidualki eta taldean ikasten laguntzen didatenak lan-merkatuaren eta haren iraganeko, egungo eta etorkizuneko beharren analisiaren bitartez.

### 2. Irizpidea

Gai naiz erronka berriei aurre egiteko esploratzearen bidez, lan-posizio desberdinen berezko ezaugarriak identifikatuz, horiek niri estrapolatuz eta kritikoki aztertuz bititza helduaren, sortutako gizartearen eta haren beharren oinarrizko alderdi desberdinak.

### 3. Irizpidea

Ezagutzen ditut Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) eta gai naiz horiek egungo lan-merkatuarekin erlazionatzeko, horietarako beharrezko gaitasunak eta horiei aurre egiten laguntzeko ideia berritzaileak aztertuz.

### 4. Irizpidea

Gai naiz lan-merkatuaren iraganeko, egungo edo etorkizuneko arazoak eta erronkak ulertzeko eta horiei aurre egiteko kontuan izanik GJHak, taldean ikerketa-lanak eginez eta horiek podcasten bitartez zabalduz.

### 5. Irizpidea

Gai naiz bizi naizen gizartearen inguruko iritzi kritiko bat izateko, indarguneak eta ahuleziak aztertuz, garapena ebaluatuz eta dibertsitatea baloratuz, ikuspegi enpatiko eta zuhur batetik, eztabaidan dialektika erabilia.

# Sekuentzia didaktikoa

Ebaluazio-irizpideak	Zeregin/jarduera mota	Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita	Ikasketa-ebidentzia	Ebaluazio-tresnak	Ebaluazio-agentea
3.1 / 4.3 / 4.4 / 4.5.	Esploratzea.	<p><b>S1. Ingurune profesiona eta enplegua: ikerketa-taldeak (4 talde), post-itak eta analisiaren bidez egindako esploratze-jarduera:</b></p> <p><b>1.1.</b> Ikasleek hobby bat identifikatuko dute post-it bakoitzean (guztira, 3) eta bateratze-lana - <b>5'</b>.</p>	<p><b>1.1.</b> Lanpostuaren ezaugarriak, gaitasunak eta lanpostua gauzatzen den enpresa motaren informazioa jasotzen duen lan-profila (horma-irudiak).</p> <p><b>1.2.</b> Diziplina arteko lau eztabaida.</p> <p><b>1.3.</b> Hausnarketa komuna .</p> <p>Ikasketa-koadernoan (V. Eranskina).</p>	<p>Bertaratze-erregistroa.</p> <p>Talde-lanaren analisia errubrika erabilita (I. Eranskina)</p> <p>Aurkezpena errubrika erabilita (II. Eranskina).</p>	Irakaslea.

**Ebaluazio-irizpideak**

3.1 / 4.3 / 4.4 / 4.5.

**Zeregin/jarduera mota**

Esploratzea.

**Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita**

**1.2.** Tematika berdina duten post-itak taldekatuko dira, lehenetsi egingo dira eta gogokoena aukeratuko da, hari lotutako lanbide bat bilatuz: “Zer lanpostuk egingo lituzke hobby-talde gogokoaren antzeko zereginak?”. **5’.**

**1.3.** Hautatu denerako bi gaitasun mota bilatuko dira. Batetik, jarrerak (ikasle bakoitzak 3 jarrera/3 post-it identifikatuko ditu) eta, bestetik, gaitasun teknikoak (ikasle bakoitzak 3 gaitasun/3 post-it identifikatuko ditu). Bateratze-lana. **5’.**

**1.4.** Ikasleek identifikatutako eta hautatutako lanpostuarekin erlazionatutako lan-eskaintzak bilatu eta eskatutako gaitasunak, soldata, lana zer inguruetan gauzatuko den (ingurune publikoa, pribatua edo autonomia) eta baldintzak egiaztatuko dituzte. **8’.**

**1.5.** Eztabaida talde bakoitzean: justua al da eskaintako soldata? Baldintzak onargarriak dira? Zer gizartemotatan egiten da? Ekitaterik baldago postu horretan? Ingurumenarekiko begirunetsua al da? Osasun-baldintza edo baldintza fisikoak eskatzen ditu? **7’.**

**1.6.** Egindako esploratze-lanaren horma-irudiaren prestaketa. **10’.**

**1.7.** Talde bakoitzak esploratu, aurkitu eta eztabaidatutakoaren inguruan egindako bateratze-lana. **4’/taldeko -> 20’.**

(Ikasleek ebaluazio-tresna izango dute lana irizpideetara moldatzeko eta ikasketa-koadernoan bete beharko dute).

Ebaluazio-irizpideak	Zeregin/jarduera mota	Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilia	Ikasketa-ebidentzia	Ebaluazio-tresnak	Ebaluazio-agentea
3.1 / 3.2 / 4.3 / 4.4 / 4.5 / 5.2.	Antzerkia klasean eta eztabaida .	<p><b>S2. Lan-harremanak (I. Zatia):</b>            Saioko talde berak erabilia, guztira lau talde, denboran zehar gertatutako lan-egoera desberdinak antzeztu behar-ko dituzte 1. saioan (S1) identifikatutako lanbidean pentsatuta, edo nola gauzatuko litzatekeen lanbide hori dago-kion testuinguru historikoan. Jarduerak hiru zati izango ditu:</p>	<p><b>2.1.</b> Antzeztutako lau lan-egoera.</p> <p><b>2.2.</b> Hausnarketa komuna            Ikasketa-koadernoak (V. Eranskina.</p>	<p>Bertaratze-erregistroa.</p> <p>Aurkezpena errubrika erabilia (II. Eranskina).</p> <p>Eztabaida (III. Eranskina).</p> <p>.</p>	Irakaslea.

**Ebaluazio-irizpideak**

3.1 / 3.2 / 4.3 / 4.4 / 4.5 / 5.2.

**Zeregin/jarduera mota**

Antzerkia klasean eta eztabaida .

**Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita**

**2.1.** A zatia: **20'**. Lan-taldeak.

**I. 1. Taldea:** Egoera horretan enplegu-emaile bat eta enplegatu bat daude Antzinaroan (esklabotza eta emakumea).

**II. 2. Taldea:** Egoera horretan enplegu-emaile bat eta enplegatu bat daude Erdi Aroan (mirabetza eta emakumearen egoera).

**III. 3. Taldea:** Egoera horretan enplegu-emaile bat eta enplegatu bat daude gremioen aroan (emakumearen ikuspegia).

**IV. 4 Taldea:** Gaur egungo lan-egoera lan-harremanen ezaugarriak identifikatuta (immigrazioaren ikuspegia).

Jarduerarako, pautak hauek izango dituzte:

- Ikerketa : **10'**
- Rol-playaren diseinua **10'**

**Saioa 2**

**Ebaluazio-irizpideak**

3.1 / 3.2 / 4.3 / 4.4 / 4.5 / 5.2.

**Zeregin/jarduera mota**

Antzerkia klasean eta eztabaida.

**Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilia**

**2.2.** B zatia: **20'**. Behin amaituta, **5'** izango ditu talde bakoitzak antzezpena egiteko.

**2.3.** C zatia: **20'**. Eztabaida: eztabaida hasiko da gida-galdera hauek erabilia:

- Gaur egun, ba al dago lan-harremanetan iraganeko aldiak (Antzinaroa, Erdi Aroa eta gremioen aldia) gogorarazten dizkigun elementu bereizgarriak?
- Ikusitako antzezpenen bidez: zuen ustez, zer bilakaera izan du emakumearen egoerak? Gaur egun, zerk jarraitzen du gertatzen iraganean gertatzen zenari dagokionez? Zer aldatu da? Zuen ustez, zerk jarraitu behar du aldatzen?
- Gaur egun esklabotza-elementurik existitzen al da? Zeintzuk? Ba al dago erlaziorik migratzaileek bizitzen dituzten egoera batzuen eta Antzinaroko esklabotzaren artean? Normalizatu egin al dugu?
- Zein izango litzateke lan-egoera perfektua? Nola irits daiteke horretara?

Gaiarekin lotutako gaur egungo prentsa-tituluak erakustea gomendatzen da. (Ikasleek ebaluazio-tresna izango dute lana irizpideetara moldatzeko eta ikaske-ta-koadernoan bete beharko dute).

Ebaluazio-irizpideak	Zeregin/jarduera mota	Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita	Ikasketa-ebidentzia	Ebaluazio-tresnak	Ebaluazio-agentea
3.1 / 3.2 / 4.3 / 4.4 / 4.5 / 5.1.	Esploratzea/antzerkia/eztabaida.	<p><b>S3. Lan-harremanak (II. zatia):</b></p> <p>lan-talde berdinekin, ikasleek klase hau lau lan-gatazka kasu prestatzeko erabiliko dute, horietan lan-merkatuko errealitate desberdinak ikusiko direlarik. Helburua da langilearen oinarrizko lan-eskubideak eta -betebeharrak, kontratu motak eta enpresarien betebeharrak ezagutzea, horiei dagozkien hausnarketa kritiko bat sortzearekin batera. Honakoa izango da dinamika:</p>	<p>Antzeztutako kasu bakoitzaren gidoi-egitura.</p> <p>Hausnarketa-eztabaida.</p> <p>Ikasketa-koaderno (V. Eranskina).</p>	<p>Bertaratze-erregistroa.</p> <p>Talde-lanaren analisia errubrika erabilita (I. Eranskina).</p>	Irakaslea.



**Ebaluazio-irizpideak**

3.1 / 3.2 / 4.3 / 4.4 / 4.5 / 5.1.

**Zeregin/jarduera mota**

Esploratzea/ antzerkia/eztabaida.

**Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilia**

**3.1.** Dagoeneko sortutako lau lan-taldeetan banatuko da klasea eta kasuak esleituko zaizkie:

- **1. Kasua:** Aldi baterako kontratua duen emakume arrazializatua (S1en aukeratutako lanpostuko langilea), bost hilabetez haurdun dago eta talde bat biltzen saiatu da enpresan lanaldi malgua negoziatzeko. Bere eginkizunak arazorik gabe egiten ditu. Kontratua amaitu baino 4 hilabete lehenago kaleratu dute.
- **2. Kasua:** kontratu mugagabea duten langileek babes eskatzen dute (S2n aukeratutako lanpostuko langileak) ingurumen-kausengatik: toxikoak, tenperatura... Klima-aldaketarekin lotutako kausak. Bere eginkizunak arazorik gabe egiten dituzte.
- **3. Kasua:** taldeak S1en aukeratutako lanbidearekin erlazionatutako postuetan lan egiten duten langileak, osasun- eta ongizate-plan bat prestatu dute eta hura aurkeztu diete koordinatzaileei, hori gauzatzeko estrategia bat eta kudeatuko duen koordinatzaile bat eskatuz.
- **4. Kasua:** gizon transa, hiru aldiz luzatu diote aldi baterako kontratua, 18 hilabetera iritsi da, kontratu mugagabea egitea eskatzen du. Kasu honetan, nagusiak ez daude ados.

**Ebaluazio-irizpideak****Zeregin/jarduera mota****Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita**

3.1 / 3.2 / 4.3 / 4.4 / 4.5 / 5.1.

Esploratzea/ antzerkia/eztabaida.

Lau kasuetan, taldeek proposatutako edukiak aztertu eta antzerki forma eman beharko diote, taldearen zati batek langilearen alderdia antzeztuko duelarik eta, besteak, enpresariarena. Eduki objektiboen ezagutza erakutsi behar dute, hausnarketarako galderen gidoi bat prestatu beharko dute S4ean gainontzeko ikaskideei egiteko, eta kasuarekin erlazionatutako prentsa-titulu bat bilatu beharko dute hausnarketan hura aztertzeko.

Saioko denbora osoa izango dute lau egoerak prestatzeko eta haren gidoi-egitura entregatu beharko dute, lotutako eskubide eta betebeharrekin, eta baita dagozkien datu estatistikoekin ere, kasu bakoitzean adierazitako problematikarekin.

(Ikasleek ebaluazio-tresna izango dute lana irizpideetara moldatzeko eta ikasketa-koadernoan bete beharko dute).

**Saioa 3**

Ebaluazio-irizpideak	Zeregin/jarduera mota	Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita	Ikasketa-ebidentzia	Ebaluazio-tresnak	Ebaluazio-agentea
3.1 / 3.2 / 4.3 / 4.4 / 4.5 / 5.1.	Esploratzea/antzerkia/eztabaida.	<p><b>S4. Lan-harremanak (III. Zatia):</b> Aurrez adierazitako lau lan-kasuen antzezpena eta talde bakoitzak klasean argibideekin koordinatutako osteko hausnarketa. (Ikasleek ebaluazio-tresna izango dute lana irizpideetara moldatzeko eta ikasketa-koadernoan bete beharko dute).</p>	<p>Lan-egoera desberdinen lau antzezpen.</p> <p>Ikasketa-koadernoan (V. Eranskina).</p>	Aurkezpena errubrika erabilita (II. Eranskina).	Irakaslea.

Ebaluazio-irizpideak	Zeregin/jarduera mota	Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita	Ikasketa-ebidentzia	Ebaluazio-tresnak	Ebaluazio-agentea
3.1 / 3.2 / 4.3 / 4.4 / 4.5 / 5.1 / 5.2.	POI.	<p><b>S5. Lan-merkatua, iraultza digitala eta enplegua eta ekintzaitza (1/3 Zatia):</b></p> <p><b>1. Zatia.</b> Proposatutako talde berdinekin, erronka hau proposatzen da:</p>	<p>Proposatutako GJHei buruzko ikerketa-txostena.</p> <p>Talde-lana.</p> <p>Podcastak.</p> <p>GJHei buruzko aurkezpenak.</p> <p>Ikasketa-koadernoak (V. eranskina).</p>	<p>Bertaratze-erregistroa.</p> <p>Talde-lanaren analisia errubrika erabilita (I. eranskina)..</p>	Irakaslea.

**Ebaluazio-irizpideak**

3.1 / 3.2 / 4.3 / 4.4 /  
4.5 / 5.1 / 5.2.

**Zeregin/jarduera mota**

POI.

**Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita**

lan-talde bakoitzerako ikerketa, honakoak landuko dituzte: GJHak zer diren, zer helburu duten proposatutako GJHek, enpresek edo GKEek eta/edo gauzatutako inguruko, nazionalak zein nazioartekoak, ekintzailetza-proiektuek, proposatutako GJHei dagokienez; enpresa horietako barneko ekintzaileekin kontaktua elkarrizketa telematikoa egiteko; proposatutako GJHetatik sortutako lanpostuak eta horiei dagozkien lan-joerak; S1ean pentsatutako lanpostua zer GJHtan kokatuko litzatekeen eta zergatik. Ikerketa horren emaitza podcast bat izango da, lanaren emaitza erakusteko aurkezpen bat eta, azkenik, kahoot bat talde bakoitzeko 5 galderekin eta lanaren 4 aukerekin.

- 1. Taldea: 1., 2., 3., 4. eta 17. GJHak ikertzea.
- 2. Taldea: 5., 6., 7. eta 8. GJHak ikertzea.
- 3. Taldea: 9., 10., 11. eta 12. GJHak ikertzea.
- 4. Taldea: 13., 14., 15. eta 16. GJHak ikertzea.

(Ikasleek ebaluazio-tresna izango dute lana irizpideetara moldatzeko eta ikasketakoadernoan bete beharko dute).

Ebaluazio-irizpideak	Zeregin/jarduera mota	Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita	Ikasketa-ebidentzia	Ebaluazio-tresnak	Ebaluazio-agentea
3.1 / 3.2 / 4.3 / 4.4 / 4.5 / 5.1 / 5.2.	POI.	<p><b>S6. Lan-merkatua, iraultza digitala eta enplegua eta ekintzaitza (2/3 Zatia):</b></p> <p><b>2. Zatia.</b> Ikerketari eta podcast-lanari eskainitako saioa. Ikasleen inguruko tokiko edo eskualdeko ekimenak baloratuko dira. (Ikasleek ebaluazio-tresna izango dute lana irizpideetara moldatzeko eta ikasketa-koadernoak bete beharko dute).</p>	<p>Talde-lana.</p> <p>Ikasketa-koadernoak (V. Eranskina).</p>	<p>Bertaratze-erregistroa.</p> <p>Talde-lanaren analisia errubrika erabilita (I. eranskina).</p>	Irakaslea.

Ebaluazio-irizpideak	Zeregin/jarduera mota	Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita	Ikasketa-ebidentzia	Ebaluazio-tresnak	Ebaluazio-agentea
3.1 / 3.2 / 4.3 / 4.4 / 4.5 / 5.1 / 5.2.	POI.	<p><b>S7. Lan-merkatua, iraultza digitala eta enplegua eta ekintzaitza (3/3 Zatia):</b></p> <p><b>3. Zatia.</b> 7. Saioa aurkezpenak eta taldean kahoot-a egiteari eskainiko zaio (20 galdera). Podcastak ikastetxeko eta auzoko/herriko sareetan banatuko dira. (Ikasleek ebaluazio-tresna izango dute lana irizpideetara moldatzeko eta ikasketa-koadernoan bete beharko dute).</p>	<p>Proposatutako GJHei buruzko ikerketa-txostena.</p> <p>Txosteneko galderekin prestatutako kahoota.</p> <p>Talde-lana.</p> <p>Podcastak.</p> <p>GJHei buruzko aurkezpenak.</p> <p>Ikasketa-koadernoan (V. eranskina).</p>	<p>Bertaratze-erregistroa.</p> <p>Aurkezpena errubrika erabilia (II. Eranskina).</p> <p>Podcastaren kontrol-zerrenda (IV. Eranskina).</p>	<p>Irakaslea.</p> <p>Kahoot.</p>

Ebaluazio-irizpideak	Zeregin/jarduera mota	Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilita	Ikasketa-ebidentzia	Ebaluazio-tresnak	Ebaluazio-agentea
4.3 / 4.4 / 4.5 / 5.1 / 5.2.	Eztabaida.	<p><b>S8. Homo oeconomicus.</b></p> <p><b>8.1.</b> Homo oeconomicusen kontzeptua aurkeztuko da <b>5'</b>.</p> <p><b>8.2.</b> Klasea bi taldetan banatuko da eta talde bakoitzari ikerketa bat esleituko zaio:</p> <p><b>J.S. Mill.</b> Nor izan zen eta zer motatako estatu ekonomikoa proposatzen du? Horri dagokion estatuaren adibidea. GJHei dagokionez, alde on eta txarrak.</p> <p><b>K. Marx.</b> Nor izan zen eta zer motatako estatu ekonomikoa proposatzen du? Horri dagokion estatuaren adibidea. GJHei dagokionez, alde on eta txarrak. <b>20'</b>.</p>	Eztabaida.  Ikasketa-koadernoak (V. Eranskina).	Eztabaida (III. Eranskina).	Irakaslea.  Autoebaluazioa.



**Ebaluazio-irizpideak**

4.3 / 4.4 / 4.5 / 5.1 / 5.2.

**Zeregin/jarduera mota**

Eztabaida.

**Zereginaren/jardueraren deskribapena orden kronologikoa erabilia**

Eztabaida egingo da. Talde bakoitzak ordezkari bat aukeratuko du eta hasierako argudioa aurkeztuko du, defendatzen duten ekonomia mota azalduta **10'**.

Ondoren, gainontzekoek parte hartuko dute eta beren estatu mota defendatu behar dute zergatiak adieraziz **25'**.

(Ikasleek ebaluazio-tresna izango dute lana irizpideetara moldatzeko eta ikasketa-koadernoan bete beharko dute).

**Saioa 8**

# Amaierako produktuak

(Ikasketa-ebidentzien bilketa)

## TALDEKOA

- ✓ Antzerki itxura emandako ekintzak, ikuspegi historiko desberdinak islatzen diren lan-egoera desberdinekin.
- ✓ GJHei buruzko ikerketa-txostena.
- ✓ Eztabaidak.
- ✓ GJHei eta horiei dagokien enpresa-lanari buruzko podcastak.

## Indibiduala

- ✓ Ikasketa-koadernoak.

# Amaierako produktuaren publiko hartzailea

- ✓ Hezkuntza-maila eta klase-taldea
- ✓ Ikastetxea
- ✓ Familiak
- ✓ Auzoa edo herria
- ✓ Erakundeak
- ✓ Adituak
- ✓ Webgunea
- Beste ikastetxe batzuk



# Planifikazioa eta baliabideak

## Materiala

Testuak, ikasleen mugikorrak, entzungailuak, ordenagailuak, proiektorea eta irudiak.

## Eremu analogikoak

Ikasgela eta informatikako gela.

## Kanpoko adituak

GJHein lotutako barne-ekintzaileak.



# IKT Baliabideak

## IKT tresnak

Irakaslearentzat: ordenagailua eta proiektorea.  
Ikasleentzat: telefono mugikorra eta entzungailuak.

## IKT aplikazioak

Aurkezpenak (Canva, google aurkezpenak...).  
Bulegotika-paketea, Spotify for podcasters edo Capcut.

## Unitate didaktikoa garatzeko baliabideak

- <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>
- <https://support.spotify.com/es/podcasters/article/logging-into-spotify-for-podcasters/>
- <https://www.capcut.com/es-es/>
- [chat.openai.com](https://chat.openai.com)
- <https://www.expoknews.com/20-ejemplos-de-empresas-que-trabajan-por-los-objetivos-de-desarrollo-sostenible/>
- <https://www.abrdn.com/es-es/institutional/insights-and-research/emerging-markets-which-companies-are-helping-address-the-uns-sdgs>
- [https://www.elespanol.com/historia/cuantas-horas-trabajaba-edad-media-respuesta-sorprendera/828667225\\_0.html](https://www.elespanol.com/historia/cuantas-horas-trabajaba-edad-media-respuesta-sorprendera/828667225_0.html)
- <https://www.man.es/man/exposicion/recorridos-tematicos/museo-femenino/17-tabica-aguadora.html>
- <https://riull.ull.es/xmlui/bitstream/handle/915/24772/EI%20Trabajo%20Pasado%2C%20presente%20y%20futuro..pdf?sequence=1>
- [https://prezi.com/zpn6r8ngg9v\\_/la-evolucion-del-trabajo-a-lo-largo-de-la-historia/](https://prezi.com/zpn6r8ngg9v_/la-evolucion-del-trabajo-a-lo-largo-de-la-historia/)
- <https://www.ccelpa.org/wp-content/uploads/2011/11/Folleto-Obligaciones-y-Derechos-del-empresario1.pdf>
- [http://descargas.educalab.es/cedec/proyectoedia/FP/FOL/bloque02\\_legislacion/contenido/leg\\_laboral\\_01/derechos\\_y\\_deberes\\_de\\_los\\_trabajadores\\_y\\_del\\_empresario.html](http://descargas.educalab.es/cedec/proyectoedia/FP/FOL/bloque02_legislacion/contenido/leg_laboral_01/derechos_y_deberes_de_los_trabajadores_y_del_empresario.html)
- <https://www.sepe.es/HomeSepe/empresas/Contratos-de-trabajo/modelos-contrato.html>

Eranskinak: <https://docs.google.com/document/d/1f5u6cKdJntIF9KuX0rETp8fkJvqoo2-u/edit>

# Dibertsitateaz arduratzeko neurriak

## Taldekoa

- Materialen eta baliabideen egokitzapena: material eta baliabide aukera bat formatu desberdinetan ematea taldeko ikasle guztien beharrak asetzeko.
- Malgutasuna jardueretan: aukerak eta alternatibak taldeko jardueretan, ikasleek beren gaitasun, interes eta ikasketa-estiloetara hoberen moldatzen direnak aukeratu ahal izan ditzaten.
- Rol en dibertsifikazioa: gaitasun eta lehenetasunen arabera, ikasleei rol eta erantzukizun desberdinak hartzea ahalbidetzen dieten jarduerak, lankidetzak eta talde-lana sustatuz.

## Indibiduala

- Laguntza indibidualizatua: behar duten ikasleei laguntza indibidualizatua ematea, tutoretzen bidez, orientazio pertsonalizatuaren bidez edo jardueren egokitzapen espezifikoen bidez.
- Itzulpenak egiteko AA bidezko IKT tresnak.
- Ebaluazio inklusiboa: ikasle bakoitzaren gaitasun eta adierazpide anitzak onartu eta baloratzen dituzten ebaluazio-metodoak erabiltzea, hazkunde eta garapen pertsonala sustatzeko atzerakadak indibidualizatua emanez (eztabaida eta antzerkia).

# Irakasleen praktikaren ebaluazioa

**Hobetu beharreko alderdiak**

**Alderdi positiboak**

**Oharrak**

**Eranskinak** *Eranskinetara sartzeko esteka*

# LAN-MUNDUA AZTERTZEN: JARRI BESTEEN AZALEAN

Alejandro Ramos Fernández

Finantzailea:



Proiektu bat:



JÓVENES  
Y DESARROLLO  
(ONGD GALIZIANA)



**BOSCO  
GLOBAL**  
ONGD SALESIANA